


Olympus Aviation-ek duen kezka nagusia gure planetaren egoera hobetzea da; izan ere, kutsadura gehiegi dago. Hain zuzen ere, Madriletik New Yorkera joan-etorrian hegazkin batek 2 edo 3 CO₂ tonelada isuritzen ditu pertsona bakoitzeko, EcoEmbesean arabera. Kontuan hartu behar da Airbusek eraikitzen duen a320 hegazkinean, airelineetan ohikoena, 220 bidaiari sartzen direla. Hori dela eta, bidai horretan 440 eta 660 CO₂ tonelada artean isuritzen dira. Gizakiak gure planeta suntsitzen daramatza urteak eta urteak. Arazo hori konpontzeko ordua da. Elon Musk-ek industria espaziala, automobilgintza eta energiaren industria era positibo batean goitik behera aldatu zuen bezala guk gure proiektuarekin industria aeroespazialean iraultza eragingo dugula badakigu eta iraultza horrekin munduak dituen bi arazo kezkarri konponduko ditugu.

Lehenik eta behin, lurra duen kutsadura murriztea da gure helburu nagusia. Gaur egun, atmosferan 750 gigatonelada karbono dioxido daude. Hori gutxi balitz, urtero zenbaki hori gero eta handiago da; izan ere, 2018an CO₂ emisioak %45 handitu dira, "cadena ser"-en arabera. Zerbait egiteko ordua da, bestela, urte gutxitan planeta eta bizitza suntsituko ditugu. Hori dela eta, CO₂ isuria sortzen duten tresnak erabiltzeari uztea beharrezkoa da eta Olympus Aviation-ek eskaintzen duen motorrak, motor tradizionala zaharkituta utziko du.

Bigarrenik, airelineen abantaila begiratuta, bere kostuak murriztuko dituzte. Azken batean, kerosenoaren (hegazkinen motorrak erabiltzen duten substantzia kimikoa) prezioa 2€ ingurukoa da gaur egun, 3.78 litroengatik. Elektrizitatearen prezioa askoz merkeagoa da, kWh bakoitzeko 0.003€ kostatzen duelarik. Egia da, motore bakoitzak ehun mila kilowatt orduko baino gehiago behar dituela, baina 100.000kWh-en prezioa 300€ dira eta horrekin bidai bat egiteko nahikoa izango litzateke.

Laburbilduz, etorkizunari begira planetaren egoera hobetzea da gure helburu nagusia kutsadura ez ezik, horrek eragiten dituen gaixotasunak ere. Hala ere, hori airelineen produktibitatea handituz egin dezakegu, egunerokotasuneko bidaien prezioa jaitsi daitekeelarik.

Guk erreakziozko motore tradizionala erabiliko dugu eredu bezala. Eredu horretatik, kombustioaren prozesua ekidingo da eta horren ordez Michael Faraday-k 1841. urtean asmatutako indukzio elektromagnetikoaren teoria erabiliko dugu. Teoria hori indukziozko sukaldeetan erabiltzen da eta elektrizitateak tentsio handia duenean sortzen duen beroan oinarritzen da. Erreakziozko motorearen, irudian ikusi daitekeen bezala, airea fase desberdinetatik igarotzen da. Hasteko, sarreran turbinak airea erakartzen du eta motorrean



sartzen da. Kompresioan konprimitu eta kombuziozko fasean airea berotu egiten da, geroago kanporatzeko eta energia zinetikoa lortzeko. Kombustioaren fasean sua erabili ordez, indukzioa erabiliko da Olympus Aviationen motorretan. Motor tradizionalarekin konparatuta

desabantaila bakarra dago: airea berotzeak denbora gehiago kostatuko duela. Hori dela eta motoreen estuktura luzeagoa izan beharko da. Nolanahi ere, denbora hori segundo gutxikoa izango da eta ez du arazo handirik eragingo..

Laburbilduz, Olympus Aviationek proposatzen duen motorrak Lurra lekuhobea bihurtuko du. Gainera, nahiz eta arestian aipatutako desabantail txiki hori egon, oro har, Olympus Aviationek industria aeroespazialean iraultza sortuko du.